

GABON-GABA TA EGOARRIAK

(Jarraipena.)

Goyerrian len lenago abestu edo kantau oi ziran bertso egokiak oso doñu ederrean. Orain aldian abesten diranak erdal itzez josiak ez ezik, ots motel gatz gabekoak dira geyentmenak beñepein.

Ona emen aspaldi abestu oi ziran egoarri-kantabatzuk, itz traketsak kendu ta itxuraz orrastutakoak.

GABON EGUNEZ

Oles ta oles, lagun onak
Gaur gera gaurko ganean,
Ai au gauaren zoragarria
Jesus jayo danean.

Jesus gurea munduan dala
Esan digute Belenen
Oitura ona galdu ez dedin
Gaur abiatu giñaden.

Agur, bai oste urena (noblea)
Guk berri on bat dakargu
Jaramona ar'bera zintzoki
Iñork aditu nai badu.

Adan da Ebak egin zuten
Eden baratzen pekatu
Gure neke arazoak
Andikan ziran gertatu.

Jaun zerukoak ordutik zuan
Antxi antxika oldoztu, (pensatu)
Eba berri bat bearko zula
Iñoiz aldian eraldu

Eba berria Neskutsarekin
Zuanian egin du
Len eta gero Neskutsgarbia
Betiko izan zan gelditu.

Adan berri bat izandu zedin
Neskutsa zuan amatu,
Adanerekin Ebaren gaitzak
Nai zituala sendatu.

Eba ederra Joseperekin
Belenen degu topatu
Oyen txiro ta apaltasunaz
Biziro gera arritu.

Belengo abere estalpean
Jesus Maria ta Jose,
Gere bizitzen erakusteko
Berak nai zuten alaxe.

Nere emazte zuzena
Eyozu orri jantzia
Errayetaño estali dezan
Orain daukan billotzia.

Aurtxo eder au parrez jartzen du
Ollarraren soñuak,
Gorputz biguña berotzen dio
Idiak eta astuak.

Aingeru batek gaztigaturik
Artzai onai mendian
Jayo dan aurr au agurtutzero
Gatoz gabaren erdian.

Jaungoikuaren Seme bakarra
Gaurko gabaren erdian,
Entzun dezute nola jayo dan
Abere otzan tartian.

Bertsoak, zarragoak eta euzkel-usai geyagokoak izan bear luteke; ez da ala izaten ordea. Euzkera besterik ez dakian aitona zarr bati, larogeita zazpi urtekoari aditu dizkiot erderazko gabon-kantak.

Agure zar eta amandre antxiñekoetatik erderakada izugarriak entzun ditut beren kanta zarretan. Euzkera ederrean ere banaka batzuk bai, bañan gutxi.

Len len gauza guziak (euzkerazkoak) obeto egiten zirala uste dute batzuk. Ez da egia ordea. Antxiñako bizikera oraingoa baño motelagoa zan, eta euzkerazkogua izan arren, eldal-usaya ta zalekeria gauz askotan idorotzen degu.

Gabon egunak len da orain berdin xamar egiten dira euzkel-erritan.

Bañan, nortiñ (persona) aundiak ¿zer gogaratzen dute gabon da egoarritz?

*
* * *

Gizon aziak, larriak, egiñak, ¿zein poz eta atsegin izaten ote dute gabon egunaz?

Umeak gizon egiteko poza duan baño, gizonak umetatik aterea miñago izaten du.

Guziok dasagu ume kondo urduri biurriak giñanean bizi giñala ondo. Umetan ezgiñekigun gero go ikasitako maltzurkeri itxusirik, eta gizonak gere bizi latz neketsua zerbait aaztu ta arintzeko, ume-garaya oroitu bear izaten degu.

Gabon-egunak dagerzkio ba (agertzen dizkio) gizon eldu ta adiñtsuari (edadekoari) gastetako parre gozoak, soñu ta kriskitiñak eskolarik etzaneko poza eta jolas aldietako iskanbilla zaratatsua.

Egoarri egunak oroitzen dizkiote adar soñu solia, tun-tun ots pozgarria, pandero ta txilibitu oyu gozoa, kalerik kale ta baserrietatik barrena beleren ibiltzen ziraneko garai zorragarria.

Gizonaren barrua Jesus-en alde ezpaldin badago ordea, egoarriak poz kutunik ez damayo (ez dio ematen). Ikusiatik beste ume ta neska-tillak urrezko parre albañuak aurpegian dituztela, Jesus-aur jayo berria artxaitxoz eta aingeruz edertua eskuetakoko-apalean arturik ethez etxe dabilzela kantari ta gozotsu, esango du noski berekiko. «¡Bai mingarri dala gastaro gaste-garai aldera begiratu ta ume abek bezela ez nabaitzea bere burua!».

Esango du bere artean gizon okerrak: «Ume nitzanian urdin urdin nekusan guzia, eta nere gogua ogenaren (pekatuaren) tortikak etzuan loitu; biotza, batsai, lirain, kutsugea neukan, ta Jesus gurtzen nuan, an eliz baztarreko «Jayotz» lilluragarri artan»..... ¡Oroitze beluna, goibel, its, alaigea, nere txikitako egoarri oroitzea!

Aztura-gaistoen erdoi lakatzak ozpindurik ezpaleuka nere barrua, or nere albotik dijuazen kozkor oyek bezin aloitsu nengoke.

¡Zorionekoa kortxozko artzaitxoak, lurrezko astotxuak, elur-mendiska iduriak, egurrezko errotatxoak eta urre-garrizko kartoi-izarrak pozez txoratzen duan umea, ta umetako oroitze orrek lasatu ta atsegin-tzen duan gizona!

Nere esku zarpatzu abek eskutxo liraiñak ziradenian, ¡bai pozik jarduten nitzala Jesus-i oinditxoak (altaretxoak) egiten, Josepe ta Marien iduriak argizaiaz tankeratzen, sendi-deunaren (pamili sagraduaren) abesti txukun-politak jaulkitzen!.....

¡Aldi gaiztoan utzi nuan ordea iru bakaldunen (erregen) izar arraya (brillante), lurreko-ospearen izar gezurrezkoa jarraitzeko.....!

Goethe eleztilariaren (neurtizlari) antzera, nere gizonduzte ontan garbaya ta garramura baizik ez darkit (arkitzen ez det).

FELIPE AYERBE

(Jarraituko da.)

GABON-GABA TA EGOARRIAK

(Jarraipena.)

Ona berriz abade euzkotar batek egindako Olentzaro Abestiak:

GABONETAKO ABESTIAK

Atozte bai artzayak
El zaitezte arin
Eta aur jayo orri
Alai agur egin.

Badakigu zerana
Zeru-lurren diña,
Zurea oro dala
Jainko aur egiña.

Zuk egiña zerua
Zuk egiña lurra,
¡Gur egiten dizugu
Goi zeruko aurra!

Gu gaizkatziagatik
Aur zera biurtu,
Zu maitatzeagatik
Gera urreratu.

ZORTZIKO LABURRAK

Aurtxo zoragarria
Ederren ederrez
Zeruakdauzkatzuna
Jantzirik izarrez,
Orain aska batetik
Guri irri parrez,
Orra zertara zeran
Gure on bearrez.

Artzayak poztu ditu
Aur onen jayotzak
Ara non datorzkion
Ikustera danak,
Ekarriaz Aurrari
Gazta ta bildotxak
Gañera eskaintzera
Berari biotzak.

¿Zer dira or datozen
Aingeru taldeak,
Soñu eder eresiz
Beteaz aldiak;
Eguerdia dirudi
Gaurko gaberdiak,
Belen aldiak daude
Eder ta argiak

ZORTZIKO LUZIAK

Belen'endago estalpe baten
 Aurtxo bat guziz ederra
 Argana dator goitikan egan
 Aingeru asko lurrera;
 Artzayak ere bildotxaekin
 Badatozkio laisterka,
 Egu berdiko eguzki argi
 Pozgarri dan Jesus-gana

Izarrezkuak ditu begiak
 Urrezko ille gorria,
 Zuri gorriaz uda berriko
 Larrosaren koloria
 Zerueta loretegi-tik
 Aldatutako loria,
 Oni diote aingeru danak
 Orain abesten gloria.

Aur zoragarri oni begira
 Daude Jose ta Maria
 Bera berotzen asnazarekin
 Astoa eta idia;
 Erakusteko beartsu ta apal
 Guri zeruko bidea,
 Aska batian orra lastotan
 Zeru-lurren Jaun aundia.

Abesti abek guziak kidetsuak dira. Euzkeran ez ezik erbeste eletan, egoarri kantan, batzuk luzego besteak laburrago, ayek egokigo, abek baldarrago, adikayaz alde txikia izaten dute.

Aingeruak, artzayak, Belengo estalpea ellorra edo etxordea, gau otza, alaitasuna, soñua, goxoak eta umeak aitatzen ez dituen abestirik ez da. Bai baño. Izketan ozta ozta dakiten aurtxo biguñai entzun izan diet nere ate ondoan:

Jesus Maria ta Jose,
 Joakin eta Ama
 Au da nik dakidana.

Txoriak ere daukan baño odol geigo ematen ez du ta.....

Txanpon asko biltzeko ta etxeak eta erriak agudo igarotzeko, ori baño kanta motzagarik eleike asmatu.....

Ezkioarrak abesten duten beste gabon olesa ere emen jarri nai det. ¡Jakiña ba orraztuta!

Abenduko illaren
 Ogeita lauean,
 Jesus gaizkatzallea
 Jayo dan gabeen.
 Gu ipintzeagatik
 Egoitza obean,
 Ogenak kitatuta (pecatua)
 Zerura bidean.

Aberatsa zan baño
 Jayo da lastotzan,
 Ez gaur asko bezela
 Puztu ta aunditzan.
 Gurariak indarrik
 Izandu ez dezan,
 Jaungoikua jetxi da
 Olako txirotzan (pobrezan)

Belengo estalpeko
 Ukullu zokoak,
 Jayotzeko autatu
 Ditu Jaungoikuak.
 Jauregi txuri eder
 Apaindutakoak,
 Artu bitzate gizon
 Biotz lurrezkuak.

Jaungoikua ukullu
 Zokoan jayotzen,
 Astoa ta idia
 Arnasaz berotzen,
 Siniskai onetan
 Zer dan igarotzen,
 Oldoztean legoke (pensatzean)
 Burutik erortzen.

Zeru-lurren jabe da
 Alde batetikan,
 Nai duana ostera
 Dauka bestetikan.
 Jaun aundia orren bat
 Jetxiko zanikan
 Nork uste bear zuan
 Orrelakorikan.

Irukoitz goteunak
 Bai zuan eraldu
 Marian errayetan
 Aurtxoo atondu.
 Leyarrean argia
 Dan lez igarotu
 Ama izanagatik
 Nekuts zan gelditu.

Jaungoikua ludira
 Gizon egñikan
 Orra nola jayo dan
 Maria gandikan.
 Galdurik gabe inoiz
 Neskustasunikan,
 Beste Amarik ez da
 Onelakorikan.

Aundiak dira oyek
 Luditar batentzat,
 Baña ez da zailla
 Jaungoikoarentzat.
 Nai duana Jesusek
 Egiten du beintzat
 Bere bizi guzia
 Dala gizonentzat.

Amari Jose eman
 Zayo emaztetzat
 Jesus-ek izan ditzan
 Biak gurasotzat
 Gizadi antz guziak
 Artu bear ontzat
 Mesede bai aundiak
 Dira oroentzat.

Jesus nola jayo dan
 Eta zergaitikan
 Zerbait azaldu det
 Eresi jardunan.
 Guziok Jaungoikotzat
 Ezaguturikan
 Agur t'agur dezagun
 Auspez jarririkan.

Ongi etorri Jesus
 (milla) Anei eskar zuri,
 Biotzez gur zaitugu
 Arren entzun guri.
 Zuretzako gu beti
 Nai genduke bizi
 Ez gaitatzula bada
 Zuregandik utzi.

Nork uste zezakean
 Gure Jesus orla
 Gizona gaizkatzera
 Etorriko zala.
 Bizi gaitezen bera
 Maitatzen degula,
 Gero bere zerua
 Eraman gaitzala.

FELIPE AYERBE

GABON-GABA TA EGOARRIAK

(Amaya)

Egoarrita-ko kantak Villafrancan, eta batez ere Zumarraga V. Urretxuko Santa Luzi peritan erosi oi dituzte goyerriko mutill kozkorrak. Geyen geyena urte abetan abesten dan kanta «ogeita laugarrena degu Abendua»..... itzez asten dana da, ta oso ezaguna ta bertso-paperetan dabil lelako emen ez det jartzen.

Erdal itzez bete beteak eta taju gutxiko bertsoak dira oyek. Periz peri saltzen diran bertsorik geyenak, ya guziak esate bateko, biziro gaizki jarriak izan oi dira, ardan-gela-zale bertsolari ordiak asmatuta-koak geyenetan dira ta.

Baserritar utsak, kalekoakin gutxi nastutakoak egiten dituzten bertsoak izan oi dira txukunak eta egokiak. Lenanko euzkeldunenak obeak dira, bañan gusiok ez; eta itxusi-baldarrak diran oyek, batzuk oso antxiñokoak, erderaz nastutakoak egiñak dira. Ezin leike ba esan bertsoak onak izango dirala aspaldikoak izan ezkeroztik, erdalkeria antxiñakoa bai da euzkal errian. Iztueta, Ernialdeko erretorearen kristau dotriña azpaldikoa da, eun urte baño geigo ditu, ta alare erdal-itzez eta esakera baldarraz josia arkitzen da euzkel itxurarik ez daukan Dotriña ori.

Orduban orain baño euzkera jatorragoa egin arren, dotriña orren jabea, Iztueta apaiza begi bietaraño erderakeriz kutsutua zegoan da, ezin ba gauz onik egin euzkeraz.

*
* * *

Gabon egun ta gabaz ernai egoten naiz mutiko-neskatill eta mutill aundien kantak (abestiak) aditzen, bertso ederren batzuk entzungo ditutalakoa.

Gabon gabaz ibiltzen dira eskean egunez lotsatzen diran mutillak. Limosna aundigoa ematen zaye gabekoai. Soñu ta guzi etortzen dira ta.....

¡Ayek estarri zakarrak eukitzen dituzte kantatzeko mutill kan-kalluak.....!

Or, gaueko seyetatik bederatzik bitarte izaten da bolararik aundiena.

Mutill saillak argiz, makillaz, txamarra, jaka edo amilla aundiz or-nituak, etxerik etxe ibiltzen dira beste beren saillai aurea artu nayaz.

Eta gabon aparia izaten da ate onduan abeslariak dirala.....

Etxe barruan pozaren zaratea ta iskanbilla, ta atarian are ta aundigoa.

Su-inguruan dauden gazteak, egunaz kantari ibillita, aulduak, lo-katzaz beteak etorri diran mutiko kondoak, otsean ezagutzen dituzte gabaz ate-ondoan kantari ari diran mutill aundiak.

—¡Seusko Patxiko ta die! ¡Antolar-ko Juan Mari mutill zarra ere or da, ama!

Amak: ¡Ago ixillik berritxu ori, ze kantatzen duen aditu bear ziegu ta!

Ate-ondo-ko mutill taldeak pilarmonika ta guzi.

Josepe ta Maria
Beren Aberrira
Zesar-en agindubak
Bultzata jua dir

(jendea) Ostea juanagatik
Bideak beterik
Egiten ez diote
Iñork jaramonik.

Orra goyen etxeak
Jodaizkun ateak,
Erantzuten diguten
Geren senideak.

Birretan iru aldiz
Josepek jotzen du,
Senidea leyon
Nekez irtetzen du.

Gizonak leyo goitik
Digute galdetzen
Gabaren garai ontan
Zer zabiltzate emen.

Neskatx bigun bat degu
Gurekin batean
Seme bat dakarrela
Bere sabelean.

Semea ta Neskutsa
¿Nola alditzke?
Gizon gezurlaria
Ortikan ken zaite.

—Bisibua erregi egingo zaigu ¡ama!

—Ixillik taluak erre itzan ik.

—Sagardua ekarri zak beeko upelatik, Juan Jose!

—¡Zaite geldi kantariak aditu bear zetiagu ta!

Belengo estalpeko
Atari aldean,
Dantzan pozik dabilta
Gotzonak taldean

Aingeruak juan dira
Belendik aurrera,
Gaztiguak emanaz
Artzayai mendira.

O gure artzai onak
Etorri zerate,
Oparia ugari
Ekarri dezute.

Batzuek arkumea
Besteak urreak
Eskartuko zaituzte
Neskutsa Mariak.

Eskeintza egiten da
Iru gauzarekin
Urrea mirrea ta
Lurrin-usayakin.

Jayo da Jesus eta
Onetsi bezaite,
Jayo dan aur onentzat
Limosna nai nuke.

Erreal biko bat eman bearko zienagu. Otzon ta emayen.....¡Ayekin berriketan egon gabe agudo biurtu adi gero!.....

—¿Zer ezar diñe?

—Ez dirala zorgin bidur, eta izatekotan ni bezelako zorgiñak billatzea nai lutekela.

—Etzeukane kantatzeko gogo txarra, biar goizean lo gurea ere izango diñe baño. Eskarrak, biar meza aukerea izaten den da.

—¿Zer ba? ¿Ez aldakin apaiz bakoitzak iruna meza ematen dituztela Jesus aurraren izenean?

—¿Arrotza egosi al den?

—I, su ondoan kokilduta egon gabe, ganbaratik ekarri itzak miz-perak, intxaurrak, sagar kanpandoyak eta erresillak, konpota egin bear diagu ta.....

—Aroztegi baserrian ari dira beste batzuk kantari. ¿Zenitsuk ote dira?

—¡Akio ire lanean, gastañak kiskalduko zaizkin da!.....

—¡Ixillik! otsa garbi ez dator baño aditzen det eta.....

Belenen dago
Zeru guzia
Gabon gabaren erdian,
Aingerutxoak
Dantzan dabilta
Oso atsegín aundian.

Neskutsa Ama
Seme egin dezu
Erronpilla bat emazu,
Nik ez daukat
Erronpillarik
Ez da beste zer emanik

Nik badaukat
Erronpilla bat
Jaun zerukoak emanik,
Baldin uraxe
Ematen ezpaizut
Ez daukat ezer besterik.

Iguzu bada iguzu
Baldin emango badezu,
Baldin ematen ezpadezu
Naigabeturik gauzkatzu.

—Orik, apika, apalduta ibilliko ditun da, guk ere garaye diñagu.

*
* *

Gabon aparia aparirik gozoenetakua da. Olio aza ayek, bisigu edo, bakallau ura, igali (fruta) eta sagardoa, aragi guziak baño gogozago jaten dira, sendi guzia su-lanbo gorriaren inguruan bildurik. Noiz banakatan elkarganatzen diran senideak, orduan maitakiro sukalderatzen dira. ¡A eche bazterra! ¡Sukalde zarreko gozotasuna, pake gozoa ta umetasuna oroitzen dezun leku deuna! Obe litzake ardangela ullun, kirats, dollorretik sarrigo alde egitea sukalderuntz, etxeko kutunekin maitakiro izketaratzera.....

Jesus, pakea-gentza edo abaguna ekartzera etorri zan lurrera. Guda kiskalgarri odoltsu onetan ezagutzen da pakearen bearra ta atsegintasuna.

¡lkasiko bagendu noizpait bederik gabon-eguarri egunaz gizadiari etortzen zaigun zerutikako pake-mallea, pake-jabea, Jesus Jaungoikua!

FELIPE AYERBE

